

• ASTERO GAIA •

## Burmuin Bankua


# Garunak du gaitz mentalen erantzuna

Osasunerako Mundu Erakundeak aurreikusi du: 10 urte barru, herrialde aberatsen osasun erronka handiena gaixotasun mentalei aurre egitea izango da. Garunak sorrarazten dituen galderei erantzuna aurkitzen egiten du lan EHUKo ikertalde batek, oso leku berezian. Javier Meana, José Vicente Lafuente eta Koldo Callado doktoreak dira Bilboko Burmuin Bankuaren kudeatzaileak. Munduan dauden bederatzietatik berriena.

ANDER EGILUZ

Argazkiak: Iñigo Azkona

Bilboko Burmuin Bankuko lantaldea.



## Burmuin Bankua

**GIZAKIA DA IZAKI ARRAZOIDUN BAKARRA;** baina zer gertatzen da pertsona batek arrazoitzeko ahalmena galtzen duenean? Buruko gaitzek hamaika izen eta forma izan ditzakete, baina jende arruntak *erotasuna* deitzen den saski-naskian sartu ohi ditu denak. “Erotasuna berez ez da ezer. Psikopatiak daude, eskizofreniak, depresioak...” azaltzen du Koldo Callado doktoreak. “Horretaz gain, paziente bakoitza mundu bat da; medikuntzako axioma batek esaten duen moduan *ez daude depresioak, paziente deprimituak baizik*. Gu saiatzen gara taldeetan klasifikatzen: depresiodunak, eskizofreniadunak... baina talde bakoitzaren barruan mota asko daude. Nahiz eta sintomatologia antzekoa izan eta talde horretan sartu, gaixo bakoitzak bere ezaugarriak ditu”.

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) egin duen azken txostenean adierazi du, 2020. urtean, herrialde aberatsek izango duten osasun arazo larriena buruko gaitzak izango direla. Gaur egun, munduan 450 milioi gaixo mental inguru daude; gizaki guztien %9a kasik. Horietatik 121 milioik depresioa dute eta 50

**Ikerketarako jasotzen dituzten burmuinak -80°C-ko tenperaturan gordetzen dituzte. Lagin zaharrena 1985ekoa da.**


bat milioik eskizofrenia. Gizarteak buruko gaixotasunen irudi distortsionatua dauka, Calladoren iritziz. “Komunikabideek estereotipoak zabaltzen dituzte: eskizofrenikoa burutik jota dagoen hiltzailea da, eta aste batez triste dagoen pertsonak depresioa dauka”. Hala ere, ezjakintasun honek badauka zergati argi bat; ikerketa psikiatrikoa oso atzeratuta egon da medikuntzako beste ikerketa arloekin alderatuz. Azken hamar urteotan, haatik, aurrerapauso handiak eman dira adar honetan.

Aurrerapauso horietako bat Bilboko Burmuin Bankua da. Espainiako Estatuko bakarra, eta munduan dauden bederatzietatik berriena. Orain dela bi urte, Espainiako Osasun Ministerioak CIBER sarea sortu zuen, zientzia gaietan ziharduten puntako ikertokiaren arteko elkarlana bultzatzeko. Ikertoki Biomedikuen Sare honetan, CIBER-SAMa buruko gaitzen ikerketaz arduratzen hasi zen, eta burmuinen banku bat egitea ezinbestekotzat jotzen. “Estatuko hogeitakortar den onenen artean, geurea hautatu zuten bankua kudeatzeko, hogeitakortar generamatzalako garunekin lanean”, azaldu du Calladok. Baina Bilboko Biobankua ez dago oraindik prest, “eztabaidatzen ari gara bankua zelan kudeatuko dugun. Kontuan izan behar da burmuin-lagin guztiak ez direla leku berean egongo; batzuk Bartzelonan gordeko dira, beste batzuk Madrilan, beste batzuk hemen...”.

### Planteamendu farmakologikoa

Mediku bizkaitarraren ustetan, 2011rako prest egongo da Bankua, eta bitartean orain arteko moduan jarraituko dute ikertzen: “Alde bate-tik, gaixo dagoen garunean zerk ez duen funtzionatzen ikertzen dugu, eta behin hori jakinda, lortzen saiatzen gara falta zaion proteina edo txarto dabilen entzima konpontzeko behar duen farmakoa. Horixe da planteamendu farmakologikoaren oinarria”. Hamabi lagun ari dira lanean Calladorekin neuro-psikofarmakologiako taldean, EHUKo Leioako campusean. 900 burmuin-lagin inguru dituzte eskizofreniak, gaixotasun bipolarrak edota depresioak jotako gaixo ohienak. Horietako askok beren buruaz beste egin zuten.

Bizitzari horren akabu tragikoa eman gura izatea ez da bakarrik egunerokotasunaren gorabeheren emaitza. DNAk informazio garrantzitsua eman dezake pertsona batek depresioa pairatzeko arriskua duen ala ez jakiteko. “Guk ikasten ditugun gaixotasun neuro-psikiatrikoek osagai genetikoak dutela argi daukagu”, dio Calladok. Pertsona batzuek arrisku genetiko handiagoa dute buruko gaitzen bat sufritzeko, adibidez, arbasoren batek horrelakoren bat izan badu; honek ez du ziurtatzen sufrituko dutenik, bakarrik esan gura du arrisku handiagoa dutela. Erretzaileek birikietako



Koldo Callado, Burmuin Bankuko doktorea

**“Garun-emaile programa martxan jarri gura dugu”****Zelan egiten duzue lan biobanku honetan? Ikerketa lerro nagusi bat dago, ala badaude ikerketa talde desberdinak?**

Ikerlerro desberdinak ditugu; geure taldean hamabi bat pertsona gaude (medikuak, biologoak, farmazialariak, psikologoak...) eta farmako antidepresiboak garatzen egiten dugu behar. Beste talde batean hartzaile kannabinoideak aztertzen dituzte paziente alkoholikoengan... Beraz ikerketa lerro desberdinak ditugu, baina beti gaixotasun neuro-psikiatrikoekin lotuta.



Oso inizatiba desberdinak dira, nahiz eta izen bera eduki.

**Zelan lortu dituzue hemen dituzuen laginak?**

Hemen ditugun gehienak Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearekin dugun akordioari esker lortu ditugu, baina hemendik aurrera, garun-emaile programa

bat martxan jarri gura dugu. Eta horren kudeaketaren gainean ari gara lanean orain. Gaixoen elkarte eta senideekin egin gura genituzke akordioak; baina gizarteak oro har nahikotxo donatzen du. Jendeak ulertzen du zientziarentzat onuragarria dela, eta elkartasun handia dagoela esango nuke. Halere, nahiz eta donatze-programa on bat eduki, oso prozesu geldoa da, gaixoa gaur zein hogeit hamar urte barru hil daitekeelako.

**Zenbat ikerketa jasan ditzake burmuin batek? “Iraungi” egiten al dira?**

Ez, ez dira iraungitzen. Guk  $-80^{\circ}\text{C}$ -ko tenperaturan gordezen ditugu, eta adibidez, hemen daukagun lagin zaharrena 1985ekoa da. Arazo bakarra kantitatea da, garuna bukatzea.

minbizia izateko arrisku handiagoa duten moduan, nahiz eta beti garatu ez.

Osgai genetikoaz gain, bizi dugun inguruneak ere badauka zeresanik buruko gaixotasunetan, bereziki estresak. Bizitzako gertaera ohikoek ere eragin dezakete depresioa: bikoteak utzi zaituela, senide bat hil zaizula... Baina zergatia edozein dela, genetikoki arriskua dutenak beti egongo dira gaixotasunetik hurbilago.

Eskizofreniaren kasuan, Calladok azaldu duen hipotesiaren arabera, ume jaioberriek

edota oraindik amaren sabelean daudenek, birus batekin kontaktuan egon izanagatik garatu dezakete gaixotasuna; hemen ere arrisku genetikoak duten horiengan eragina handituz. Gaixotasun bipolararren zergatiak, aldiz, ez dira ezagunak oraindik, baina faktore genetikoek, biokimikoek eta inguruneek zeresana dutela badakite.

Gaixotasun bipolarra, edo nahaste bipolarra, oso zaila da diagnostikatzen, gaixotasun ziklikoa delako. Nahaste maniako-depresibo bezala ere ezagutzen da, eta gaixoaren gorabehera emoziona-

**Munduan 450 milioi gaixo mental inguru daude. 121 milioik depresioa dute eta 50 bat milioik eskizofrenia**

**ZIENTZIA  
IRAKURLE  
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela lau urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoz, sei dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.

**gure artean euskaraz**

**BFA DFB**

Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

## Buruko gaitzen inguruko zenbait datu

- ✓ Munduko biztanleen %1ak eskizofrenia dauka, eta buruko gaitzen bat duten hamarretik 2-3k depresioa sufritzen du. Gaixotasun mental bat baino gehiago izateari komorbizitatea deitzen zaio, eta 10 gaixo mentaletik 4k dauka.
- ✓ Buruko gaitzak ez dira diagnostikatzen errazak. Depresioa sufritzen duten 10etik 5 ez daude kontrolatuta.
- ✓ Suizidioa da gaixotasun mentalen arrisku handiena; beren buruaz beste egiten duten hamarretik 6k buruko gaitzen bat dauka –alkoholismoa dutenak kontuan hartu barik–.
- ✓ Tratamendu oso onak daude depresioari aurre egiteko; 10etik 7k gaixotasuna atzean uztea lortzen du.
- ✓ Eskizofrenia duten gaixoen %8ak bakarrik lortzen du lan kontratua; diagnostikoa egin eta bost urtera. Ezjakintasunak eragiten du gaixo mentalen baztertzeta. AstraZéneca Fundazioaren inkesta baten arabera, 10 lagunetik 9k uste du gizartea kontzientziatu behar dela buruko gaitzen inguruan.
- ✓ 1992tik aurrera, urriaren 10ean Buruko Gaitzen Nazioarteko Eguna ospatzen da.

lak dira ezaugarri nagusia. Gaixotasunaren fase depresiboa nahiko ondo ezagutzen da, baina aldi maniakoak oraindik galdera asko eragiten ditu, David A. Kahn, Columbiako Unibertsitateko (AEB) doktoreak *Treatment of Bipolar Disorder: A Guide for Patients and Families* liburuan azaldu duen moduan. Bere esanetan, gaixotasun hau sufritzen duten pertsonen zortzi urte eman ditzakete diagnostiko egokia egiten dieten arte, eta arazoa da, horietako %6ak bere buruaz beste egiten aiaitzen duela, Kay R. Jamison doktorearen datuen arabera.

Buruko gaitzak eta suizidioa, tamalez, eskutik doaz askotan, baina garuna erasaten duten gaixotasun guztiak ez dira berdinak. “Alde batetik gaitz neurologikoak ditugu, eta beste batetik gaixotasun mentalak”, argitu du Calladok. “Nahiz eta guztien korpusa burmuina izan, oso gaixotasun desberdinak dira alzheimerre edota parkinsona, eta eskizofrenia zein nahaste bipolarra, adibidez. Lehenengo biak gaitz neurologikoak dira, eta arazo biologiko oso argiek eragiten dituzte: parkinsonaren kasuan neurona batzuk desagertzen dira, eta alzheimerre duen garun batean lesio argiak ikus ditzakezu mikroskopiaarekin”.

## Gaixo mentalaren profila

✓ **Depresioa:** 50 urtetik gorako emakumeak eta 60 urte inguruko gizonezkoak. Andrazkoengan oso momentu kritikoak dira seme-alabak etxetik alde egiten duteneko, eta menopausiaren garaia. Gizonezkoengan erretiroa.

✓ **Eskizofrenia:** 20-25 urte inguruko gizonezkoa. Arrisku genetikoak dutenengan zenbait droga hartzeak gaixotasuna garatzeko aukera ugaritzen du.

✓ **Gaixotasun bipolarra:** Gaixotasun honek ez du batere profil zehatzik. Oso gaixotasun zaila da diagnostikatzen, askotan depresioarekin nahasten delako. Halere, ohikoena gaztaroan piztea da, eta bizitza osoan zehar jasatea.

## Mikroskopiaoren mugak

Gaixotasun mentalen kasuan, badaude baita ere, gehienetan, neuro-transmisoreetan asaldurak, baina hauek ez dituzte froga fisiko argirik uzten. “Mikroskopia batekin ezin dugu ikusi garun batek eskizofrenia ala depresioa duen”, dio Calladok, “horregatik diagnostikoa egiteko sintomatologian oinarritu behar gara”. Gaixoa bizirik dagoen bitartean mediku batek zehaztu behar du pertsona horrek gaixotasun mentalen bat duen ala ez; eta badaude horretarako test berezi batzuk garatuta. Odol analisietan ez da ezer agertzen gaixotasun hauen inguruan, ez baitute arrasto fisiko garbirik uzten.

Horregatik da hain garrantzitsua Bilboko Biobankua, burmuinekin batera diagnostiko klinikoak egongo direlako. Buruko gaitzetan dena ez da kimika hutsa, nahiz eta osagai organikoak berebiziko garrantzia duen. “Hil aurretik, paziente horien medikuek egindako historia klinikoek argibide asko emango dizkigute burmuin gaixo horien jokamoldeen gainean”.

Ikerketek erakutsi dute akats organikoak badaudela gaixo gehienek garunetan, baina horietako askok psikoterapiarekin nahikoa daukate; esaterako, depresio bat atzean uzteko. Callado gaixoen bizitza hobetuko duen farmakoaren bila lanean badabil ere, kexu da zenbaitetan azkarregi medikatzen delako pazienteak: “Estatu Batuetan, zoritxarrez, zuzenean ematen dizkiete pilulak triste daudenei, eta hori ez da zuzena”. Baina ez da hain urrun joan behar, Euskal Herrian urtero egiten baitu gora antsiolitikoek salmentak. Hala ere, ez da soilik profesionalen erantzukizuna farmakoenganako gehiegizko joera. EHUKo Psikologia Katedraduna den Enrique Echeburúak uste du eguneroko bizitza psiko-patologizatzen ari garela. Duela gutxi *El País* egunkariak egin dion elkarrizketan horrela azaldu du Echeburúak gizar-tearen jarrera: “Sufrimenduari aurre egiteko gaitasuna galdu dugu. Bizitzako garai txarrak jasateko, senide bat hiltzen zaigunean adibidez, gaur egun konponbide azkarrena bilatzen dugu: samina atzean uzteko pilula bat”.

Buruko gaitzek ez dute egoera sozial edo ekonomikoez ulertzen. Daukazu bizitza maila daukazula, burmuinak irrist egin diezazuke abisatu gabe. *El País*eko artikulua berean, Antonio Espino psikiatra madrildarrak daramagun bizitza estiloak eragiten duen estresa gaitzetsi du: “Gaur egungo lan antolaketa izugarri estutzen du jendea, eta presio horrek antsietate eta depresio larriak eragiten ditu”. Echeburúaren ildo beretik, arazo honekin bukatzeko piluleta ez dugula jo behar gehitu du Espinok; “mundu osoan pairatzen ari garen egoera da hau, eta politikariak, enpresariak eta sindikatuak dira lan egin behar dutenak egoera hau baretzeko”. Ez dira gehiegikeriak Espinoren hitzak, urtero-urtero gora egiten baitu depre-



Gaixotasun mentalak aztertzeke lanean dabilen EHuko ikertaldea, eguneroko beharrean.



sioak eta estresak eragindako bajen kopuruak. OMEren datuen arabera, 2020. urterako depresioa izango da gaixoaldi bajen bigarren arrazoi nagusia. “Gaixotasun hauek estres handiegia duen gizartean bizi garelako ugaritzen ari dira”, Koldo Calladoren aburuz.

### Jokoaren eta drogen menpe

Bilboko Burmuin Bankuaren atzean, Calladorekin batera, Javier Meana eta José Vicente Lafuente katedradunak ari dira lanean. Beren lantaldean menpekotasunei buruzko ikerketak ere egiten dituzte. Drogenganako eta jokoa-enganako menpekotasunen arteko desberdintasunaz galdetuta, Calladok oinarrian gauza bera direla azaldu du: Garunean, erre-konpentsa-sistema deitzen den prozedura antzeko bat gertatzen da. Sistema hau diseinatuta dago espezia mantentzeko ezinbestekoak diren jokabideak ziurtatzeko: jatea, edatea eta sexu harremanak izatea. Baina badaude sistema hau aktibatzen duten beste substantzia batzuk: kokaina, heroina, alkohola... eta badaude sexua bezalako beste portaera

Buruko gaitzetan dena ez da  
kimika hutsa, nahiz eta osagai  
organikoak berebiziko  
garrantzia duen

batzuk, jokoa adibidez, zentro hori estimulatzeko dutenak. Beraz, menpekotasuna sortzeko oinarri neurologikoa antzekoa da.

Menpekotasunen kasuan arrisku genetiko ere badago: “Badaude kokaina lantzean behin hartzen dutenak eta bestelako arazorik ez dutenak, baina badago jendea kokaina birritan hartuta utzi ezin duena”, Calladoren esanetan. Oso zaila da menpekotasuna kontrolatzen ikastea, ezinezkoa ia-ia. “Menpekotasunaren definizioa *portaera kontrolaezina* da. Pertsona bat zaletasun bat izatetik menpekotasuna izatera igarotzeak kontrola galdu duela esan gura du”.

Bilboko Biobankuaz arduratuko diren zientzialari hauek hasi dira jasotzen, dagoeneko, merezi duten errekonozimendua. Mikroskopio eta saio-hodien artean darmatzaten urte morderen ostean, *Nature* aldizkari entzutetsuak, joan den otsailean, publikatu zituen eskizofreniaren inguruan egin dituzten aurkikuntzak. Eta hemendik gutxira, gaixotasuna tratatzeko erabilgarria izan daitekeen proteina bat patentatuko dute, Progenika bioteknologia enpresa euskaldunarekin elkarlanean. ■



**UZTARTZA**  
Aterpetxea • Jatetxea

Herriko plaza 7 - 20150 Aduna  
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta